

Eguzki energia lortzeko modua

Eguzki baratzeak

Eremu zabal mortuetan eguzki panel erraldoiak, modu kartesiarrean banatuak, geldi-geldi eta lanean hala ere. Tarteko pasabideetan isiltasuna da nagusi, eta senak bultzatuta bezala, zerura begiratzeko gogoia ematen du, eguzki bila. Hark eman ahala, atxiki egiten dute panel lerro amaigabeek, eta eguzki irradak energia elektriko bihurtzeko prozesua hasten dute. Hondakinik sortu gabe lortzen da hori, eta ingurumenarentzat ondorio larri-larriarik eragin gabe (paisaiari egiten zaio kalterik handiena). Teknologia berria da oraindik ere, eta hektarea ugari eremuak behar izaten ditu sare elektriko nagusia behar adina watt-ez hornitzeko; errentagarritasuna luzera begira kalkulatu da, eta laguntza publikoak ezinbestekoak dira sistema berritzeko. Eguzkia egunero ikusi ez arren, gizakiak ikasi du egunero bildu dezakeela eguzkiaren energia, eta XXI. menderako, ez da ikasbide txarra.



kilogramo edukita ere, lan handirik gabe mugitzen dira eguzkiari atzetik. Panelen gainazalak ez du gainditzen 25 °C-ko tenperatura, eta 80 km/h haizeari aurre egiteko prestatuta dago. Energia paraleloan joaten da moduluetan barrena, inbertsorera heldu arte.

3. Korrante-inbertsoreak: zuzenetik aldizkatzailera

Zutabeek goi mailako teknologiaz jantzita edukitzen dute burua; kontrol txartelak jartzen dizkiete, eta horien zeregina izaten da korrante zuzena aldizkatzailera bihurtzea. Aldaketa hori egitea behar-beharrezkoa da energia berehala eta zuzenean sar dadin sare elektrikorara.

4. Kontagailuak eta mantentze-lanak

Panel multzo bakoitzak etxolatxo bat izaten du erdian, eta hantxe edukitzen du bakoitzak bere kontagailua. Han kontaktzen dute panel bakoitzak zenbat kilowatt sortu eta bidali dituen sare elektrikorara. Emaizta ez da izaten beroaren araberrako, ezta eguzki-orduen baitakoa ere; panel bakoitzak zenbaterako eguzki-irrada jasotzen duen, horrek baldintzatuko du eguneko uzta. 800 panel dituen baratze batek, batez beste, urtearen buruan 14,28 kilowatt sortzen ditu orduko. Hau da, 6.500 etxe hornitzeko adina. Ikerketek baieztatzen dutenez, sistema honekin 13.000 tona karbono dioxido (CO₂) isur-

tzea saihesten da. Isuri hori eginez gero, 800.000 zuhaitzeko baso baten lana beharko litzateke kutsadura arrasto hori garbitzeko.

5. Azpiestazio elektrikoak

Eguzki baratzetik hurbil, azpiestazio elektrikoak egon ohi da, eta hari dagokio tentsioa egokitu eta sortu den elektrizitatea sare nagusian barneratzea. Erabiltzaileak ez du antzematen inolako aldaketarik zerbitzu elektrikoan, baina jakinaren gainean dago: sorgailu fotovoltaikoak zenbat eta kilowatt gehiago sortu, orduan eta gutxiago sortuko dute zentral kutsagarriek.

6. Eraikinetan ere badira baratzeak

Garapen iraunkorra eta energia iturri garbiak sustatu nahian, eraikin berrietan eguzki panelak jarri behar direla esaten du Eraikitze-lanen Kode Teknikoak (2006an onartu zuten, eta 2007an moldatu). Panel horiek ez dira energia-sorgailu fotovoltaikoak, ezpada termoelektrokoak: ur bero erabilgarria lortzeko erabiltzen dituzte eguzki irradak. Hala ere, badago modua eraikinetan ere erabiltzeko baratzeetan erabiltzen den teknologia bera; ez litzateke hainbeste energia sortuko, baina sistema berdin-berdin egongo litzateke sareari paraleloan konektatuta, eta sortuko litzatekeen energia sare nagusira bideratuko litzateke. Azpiegitura mota horrek 30 urteko bizia izan dezakeela uste da, betiere behar bezala zaintzen badira eta mantentze-lanak ere zorrotz egiten badira. //



1. Elektroiak mugitzen dituen argia

Eguzkiak argia bidaltzen du Lurrera, energia, fotoi izeneko partikula batzuen bidez; fotoiek eramaten dute irrada elektromagnetikoa, eta horri esker sortzen da efektu fotovoltaikoa. Panelen koadrotxoak silizioz eginak daude, eta elektroiak izaten dituzte; eguzki-argiak koadrotxo horietan jotzen duenean, elektroiak kitzikatu egiten dira, eta ihesi hasten. Hor sortzen da energia, elektrizitate moduan dabilen energia. Panelen kutxatxoak serieko zirkuituen bidez daude elkarri konektatuta, eta horrek handitu egiten du tentsioa.

2. Egusentitik iluntzeraino, eguzkiari 'begirik' kendu gabe

Zutabe batek eusten die panel erraldoiei; 80 metro koadrokoak ere badira, eta 1.700

